

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Administrazio Xedapenak

Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

6177

63/2011 FORU DEKRETUA, urriaren 26ko Diputatuen Kontseiluarena, zehaztu egiten dituena senideak zaintzeagatik jaso beharreko dirulaguntzen 2011ko zenbatekoak, otsailaren 12ko 11/2008 Foru Dekretuaren, apirilaren 8ko 24/2008 Foru Dekretuaren eta abuztuaren 3ko 40/2010 Foru Dekretuaren bidez onartuak.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutakoarekin bat etorri, diputatuen kontseiluak ondoko foru dekretuak onartu zituen:

- 11/2008 Foru Dekretua, otsailaren 12koa, Arabako lurralde historikoan laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa xedatzen duena. Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa laguntzaile bat kontratatzeak eragiten dituen gastuak ordaintzen laguntzea du helburu. Laguntzaile horrek ikasketak egiten edo laneratan lagunduko du, baita mendetasuna duten pertsonen eguneroko bizitzaren oinarritzko zereginak autonomia handiagoz egiten ere. Horretarako, mendetasun gradu eta mailaren arabera dirulaguntzak zehaztuko dira.

- 24/2008 Foru Dekretua, apirilaren 8koa, Arabako lurralde historikoan zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari buruzko araudia onartzen duena. Dekretu horren helburua da Administrazio Publikoaren mendeko zentro eta zerbitzu publikoetan eta itunduetan hartu ezin diren onuradunen banako arreta programan ezarritako zerbitzuen kostua finantzatzen laguntzea. Horretarako, mendetasun gradu eta mailaren arabera dirulaguntzak zehaztuko dira.

- Azkenik, 40/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, Arabako lurralde historikoan mendetasun egoeran dauden pertsonak familiaren baitan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen duena. Prestazio ekonomikoa horrek zaintzaile ez profesionalaren zaintzak eragindako gastuak ordaintzen laguntzea du xede. Horiek horrela, alde aurretik aipatutako bi dekretuetan bezala, mendetasun gradu eta mailaren arabera dirulaguntzak zehaztuko dira.

Hiru foru dekretu horietan zehaztutako zenbatekoak urtero eguneratzen dira, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren onuradun guztiei bermatzen zaien gutxieneko babes mailan eta haien araudietan zehazten denaren arabera. Nahiz eta 11/2008 Foru Dekretuak xedatzen duen eguneratze hori Diputatuen Kontseiluak egingo duela, 24/2008 Foru Dekretuak arautzen du urteroko eguneratze hori organo eskudunak egingo duela eta 40/2010 Foru Dekretuak xedatzen du urteroko eguneratze hori saileko foru diputatuaren foru aginduaren bidez egingo dela.

Apirilaren 20an 570/2011 Errege Dekretua onartu zen. Dekretu horrek 9/2006 Legeak eskaintzen dituen zerbitzuak eta diru prestazioak zenbateraino babestu zehazteko irizpideak aldatzeaz gain, 2011ko ekitaldirako diru prestazioen zenbatekoak zehaztu zituen.

Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioko Gizarte Politikaren eta Kontsumoaren Idazkaritza Nagusiaren 2010eko azaroaren 4ko Ebazpena argitaratu zen (EAO, 2010eko azaroaren 24koa). Horren bidez, aditzera eman zen I. gradua (mendetasun arina) 2. maila aitortuta duten pertsonen eman beharreko zerbitzuen babes mailak eta prestazio ekonomikoaren zenbatekoak zehazteko irizpideak ezartzen dituen erabakia.

Disposiciones Administrativas

Decretos Forales del Consejo de Diputados

DEPARTAMENTO DE SERVICIOS SOCIALES

6177

DECRETO FORAL 63/2011, del Consejo de Diputados de 26 de octubre, que fija la cuantía para 2011 de las prestaciones económicas por asistencia personal vinculada al servicio y cuidados en el entorno familiar, aprobadas por Decretos Forales 11/2008, de 12 de febrero; 24/2008, de 8 de abril y 40/2010, de 3 de agosto.

En aplicación de lo dispuesto en la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, se procedió a la aprobación, por el Consejo de Diputados, de los siguientes Decretos Forales:

- Decreto Foral 11/2008, de 12 de febrero, donde se establece la prestación económica de asistencia personal en el Territorio Histórico de Álava. Dicho Decreto Foral destina esta prestación económica a contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la contratación de un/una asistente personal, que facilite el acceso a la educación y/o al trabajo, y posibilite una mayor autonomía en el ejercicio de las actividades básicas de la vida diaria a las personas con dependencia, estableciendo unas cuantías económicas dependiendo del grado y nivel de dependencia.

- Decreto Foral 24/2008, de 8 de abril, donde se establecía la normativa reguladora de la prestación económica vinculada al Servicio en el Territorio Histórico de Álava. Este decreto pretende contribuir a la financiación del coste de los servicios establecidos en el Programa Individual de Atención de cada persona beneficiaria, cuando no sea posible su atención a través de los centros y servicios públicos y concertados dependientes de la Administración Pública y estableciendo unas cuantías económicas dependiendo del grado y nivel de dependencia.

- Finalmente, el Decreto Foral 40/2010, de 3 de agosto, donde se establece la normativa reguladora de la prestación económica para cuidados en el entorno familiar de personas en situación de dependencia en el Territorio Histórico de Álava. Es el destino de esta prestación económica contribuir a la cobertura de los gastos derivados de la atención prestada por la persona cuidadora no profesional, estableciendo, al igual que los dos decretos anteriores, unas cuantías económicas diferentes en función del grado y nivel de dependencia.

Las cantidades fijadas en estas tres normativas, han sido anualmente actualizadas en función a lo que se determina el nivel mínimo de protección garantizado a las personas beneficiarias del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, y a lo que determinan las propias normativas reguladoras, si bien el Decreto Foral 11/2008 establece que la actualización se realizará por el Consejo de Diputados, el Decreto Foral 24/2008, señala que la actualización anual se realizará por el órgano competente para ello, y el Decreto Foral 40/2010, determina la actualización anual por Orden Foral de la Diputada titular del Departamento.

Aprobado con fecha 20 de abril el Real Decreto 570/2011, en el que además de modificarse los criterios para determinar las intensidades de protección de los servicios y la cuantía de las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, se establecen las cuantías de las prestaciones económicas para el ejercicio de 2011.

En el BOE de 24 de noviembre de 2010, se publicó la Resolución de 4 de noviembre de 2010 de la Secretaría General de Política Social y Consumo del Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad, por la que se hace público el Acuerdo sobre los criterios para determinar las intensidades de protección de los servicios y el importe de las prestaciones económicas para las personas reconocidas en situación de dependencia en Grado I (dependencia moderada), Nivel 2.

39/2006 Legeak, azken xedapenetatik lehenengoan ezartzen duenez, lege horretan jasotako mendetasunengatik prestazioak jasotzeko eskubidea mailaz maila gauzatuko da, gradualki, 2007ko urtarriaren 1etik aurrera, bertan zehaztutako egutegiaren arabera. Aipatutako egutegiarekin bat etorri, 2011ko urtarriaren 1etik aurrera 1. gradua (mendetasun arina) 2. maila aitortuta duten pertsonen eskubide hori gauza dezakete.

Azkenik, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak 8.2.b) eta c) artikuluetan xedatzen duenez, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren egitekoak dira, besteak beste, honako hauek: 10.3 eta 15 artikuluekin bat araututako zerbitzuek eskaini beharreko babes maila zehazteko irizpideak finkatzea; 20. artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian xedatzen diren prestazio ekonomikoen baldintzak eta zenbatekoa zehaztea.

Beraz, ezinbesteko jotzen dut 2011rako prestazio ekonomikoen zenbatekoak eguneratzea. Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 7. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenak baliatuz, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, ondokoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- 2011ko ekitaldirako onartzea ondoko prestazio ekonomikoak: zerbitzuari lotutako laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak eta senideak zaintzeko prestazio ekonomikoak, biak ala biak Arabako lurralde historikoaren eremuan. Batzuk zein besteak eranskinean ageri dira.

Bigarrena.- 11/2008, 24/2008 eta 40/2010 foru dekretuen 8. artikuluen 1. paragrafoaren lehen atala aldatzea. Hona hemen aurreantzean hark izango duen testua:

“8. artikulua. Prestazioaren zenbatekoa zehaztea.

1. Diputatuen kontseiluaren foru dekretu bidez onartuko da urtero prestazioa jasotzeko eskubidea duten gradu eta mailetarako foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoen zenbatekoa. Onartu ere 39/2006 Legean xedatutako egutegiarekin bat etorri. (...)”

Hirugarrena.- Zerbitzuari lotutako prestazioak Banakako Arreta Plana onartu zenetik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

Laugarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, baina 2011ko urtarriaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Bosgarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 26a.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.- Gizarte Zerbitzuen zuzendaria, PALOMA ARANCETA ARILLA.

Añadir que la Ley 39/2006 establece en su Disposición Final Primera que la efectividad del derecho a las prestaciones de dependencia incluidas en la misma se ejercerá progresivamente, de modo gradual y se realizará de acuerdo con el calendario que señala y cuya fecha de comienzo fue el día 1 de enero de 2007. De conformidad con el citado calendario, a partir del 1 de enero de 2011 ha entrado en vigor la efectividad del derecho de quienes sean valorados en el Grado I (dependencia moderada), Nivel 2.

Finalmente, el artículo 8.2.b) y c) de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, establece que corresponde al Consejo Territorial del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, entre otras, las siguientes funciones: - Establecer los criterios para determinar la intensidad de protección de los servicios previstos de acuerdo con los artículos 10.3 y 15; - Acordar las condiciones y cuantía de las prestaciones económicas previstas en el artículo 20 y en la Disposición Adicional Primera.

Entendiendo necesario actualizar las cuantías económicas para el año 2011, en uso de las facultades conferidas por el artículo 7 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, a propuesta de la Diputada de Servicios Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero.- Aprobar, para el ejercicio de 2011, las cuantías de las prestaciones económicas por Asistencia Personal, Vinculada al Servicio y para Cuidados en el Entorno Familiar, en el ámbito del Territorio Histórico de Álava que figuran en el Anexo.

Segundo.- Modificar el párrafo primero del apartado 1 de los artículos 8 de los Decretos forales 11/2008, 24/2008 y 40/2010, que quedan regulados de la siguiente forma:

“Artículo 8. Determinación de la cuantía de la prestación.

1. La cuantía de la prestación económica regulada por el presente Decreto Foral será aprobada anualmente por Decreto Foral del Consejo de Diputados, para los grados y niveles con derecho a prestaciones, de acuerdo con el calendario de implantación de la Ley 39/2006. (...)”

Tercero.- Los efectos económicos de la prestación vinculada al servicio no se retrotraerán más allá de la fecha de aprobación del Plan Individual de Atención.

Cuarto.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA, pero sus efectos se retrotraerán al día 1 de enero de 2011.

Quinto.- Ordenar su publicación en el BOTHA

Vitoria-Gasteiz, a 26 de octubre de 2011.- Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Diputada de Servicios Sociales, MARTA ALAÑA ALONSO.- Directora de Servicios Sociales, PALOMA ARANCETA ARILLA.

ERANSKINA

2011rako, gradu eta mailako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoa

| Graduak eta mailak | Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa – Euro hileko | Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa, hiru urtez jarraian Arabako lurralde historikoan errolatuta egon direla egiaztatzen dutenentzat – Euro hileko | Senideak zaintzeko prestazio ekonomikoa – Euro hileko | Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa – Euro hileko |
|-----------------------|--|---|---|--|
| | Zenbatekoa | Zenbatekoa | Zenbatekoa | Zenbatekoa |
| III. gradua, 2. maila | 833,96 | 1.000,00 | 520,69 | 833,96 |
| III. gradua, 1. maila | 625,47 | 1.000,00 | 506,96 | 625,47 |
| II. gradua, 2. maila | 462,18 | 1.000,00 | 405,90 | ---- |
| II. gradua, 1. maila | 401,20 | 610,00 | 300,90 | ---- |
| I. gradua, 2. maila | 300,00 | 508,00 | 180,00 | ----- |
| I. gradua, 1. maila | ---- | 508,00 | ----- | ---- |

ANEXO

Cuantías máximas de las prestaciones económicas por grado y nivel para el año 2011

| Grados y niveles | Prestación económica vinculada al servicio – euros mensuales | Prestación Económica Vinculada al Servicio para quienes acrediten empadronamiento en el THA durante 3 años consecutivos – Euros mensuales | Prestación económica para cuidados en el entorno familiar – euros mensuales | Prestación económica de asistencia personal – euros mensuales |
|-------------------|--|---|---|---|
| | Cuantía | Cuantía | Cuantía | Cuantía |
| Grado III Nivel 2 | 833,96 | 1.000,00 | 520,69 | 833,96 |
| Grado III Nivel 1 | 625,47 | 1.000,00 | 506,96 | 625,47 |
| Grado II Nivel 2 | 462,18 | 1.000,00 | 405,90 | ---- |
| Grado II Nivel 1 | 401,20 | 610,00 | 300,90 | ---- |
| Grado I Nivel 2 | 300,00 | 508,00 | 180,00 | ----- |
| Grado I Nivel 1 | ---- | 508,00 | ----- | ---- |